

Donostia, 2021eko azaroaren 5a

ETXEBIZITZAREN BATZORDE EZ IRAUNKOR BAT SORTZEKO PROPOSAMENA

Haizea Garay Gallastegui Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 90., 91. eta 148. artikulua oinarri, ETXEBIZITZAREN BATZORDE EZ IRAUNKOR bat sortzeko proposamen hau egiten du:

JUSTIFIKAZIOA

Donostiak urteak daramatza etxebizitza eskuratzeko egoera larrian. Eta arazoa ez da bakarrik etxebizitza oso garesti dagoela, hala erosteko nola alokatzeko; prezioek igotzen jarraitu dute gure hirian, are pandemian, Estatuko gainerako herrietan, jaitsi direnean ere.

2019an onetsitako Udal Etxebizitza Planaren arabera, Etxegintza udal-sozietatean 9.714 etxebizitza babestu eskatu dira 2015etik 2018ko lehen hilabeteetara bitartean; horietatik 6.597 alokairu-erregimenean eskatu dira, eta 802 jabetzan; beste 2.288, berriz, alokairuan zein jabetzan. Era berean, Txomiñenean eraiki diren alokairuko babes ofizialeko 162 etxebizitzak esleitzeko prozeduran 7.253 eskatzaile izan ziren azkenean, eta horrek esan nahi du nabarmen handitu dela Etxebizitzako Udal Planean jasotako alokairuko etxebizitzen 6.597 eskatzaileen datua. Are gehiago, Etxebideren azken estatistiken arabera, etxebizitza babestuaren eskatzaileak 12.000 baino gehiago dira Donostian.

Puntu honetan, kontuan izan behar dugu herritarren segmentu garrantzitsu batek ez duela ahalmen ekonomikorik etxebizitza babestu tradizionala eskuratzeko, ezta alokairu-erregimenean ere, eta pertsona horiek, gainerako guztiek bezala, etxebizitza duin bat izateko giza eskubide

konstituzional eta subjektiboaren titularrak direla.

Eskaera horren aurrean, 2019ko Udal Etxebizitza Planak erakusten duenez, desaktibatuta geratu dira Plan Orokorrak –2010ean onetsiak– babestutako etxebizitza gehienak kokatzen dituen eremuak (Aduritz-Akular –babes publikoko 2.354 etxebizitza eta 480 zuzkidura-bizitoki–, Antondegi –babes ofizialeko 2.643 etxebizitza eta 500 zuzkidura-bizitoki– eta Aldatseta –babes ofizialeko 635 etxebizitza eta 20 zuzkidura-bizitoki–). Lehena, Hirigintzako aurreko zinegotziak adierazitakoaren arabera, ekonomikoki bideraezina da, eta azken biak, 2016ko Donostiako Eremu Funtzionalaren Lurralde Plan Partzialak ezartzen duenaren arabera, berriz “aztertu” behar dira, alegia, desklasifikatu edo, gutxienez, deskalifikatu egin behar dira; horrek esan nahi du Plan Orokorrean aurreikusitako 7.527 etxebizitza babestuetatik 1.895 bakarrik geratzen direla indarrean –gehienak eraikita daude–, eta 1.329 zuzkidura-bizitokietatik, 329. Plan Orokorrearen zehaztapenen porrot horrek argi uzten du, 123/2012 Dekretuaren 19. artikulua terminoetan, ez daudela eta aurrerantzean ez direla izango aurreikusitako eskaeraren arabera beharrezkoak diren babes publikoko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak.

Aldi berean, etxebizitza turistikoak ugaritzen ari dira, eta, horrekin batera, bizitegi-erabilerako etxebizitzak gutxitzen; erabilera turistikoko gelak dituzten etxebizitzek ere gora egin dute; hotel-plazak areagotu egin dira lehen bizitegitarako ziren eraikinetan eta hezkuntza- edo kultu-funtzioak zituzten eraikinetan, eta hiri-lurzorua hotelak eraikitzeke erabiltzen da, etxebizitzak eraikitzeke erabili beharrean.

Bizitegi-larrialdiko egoera honetan, etxegabetzen jarraitzen da, nahiz eta 2015eko irailean Donostia etxegabetzerik gabeko hiri izendatu. Etxegabetzeak Stop, Azorako Maizterrak eta Alokairu plataformek astero-astero egiten dituzten kontzentrazioek gogorarazten digute etxegabetze-demandak eta horrek egoera horretan diren donostiarrei eragiten dien larritasuna eguneroko arazo direla: bankuek demandak jartzen dituzte bi edo hiru kuota ez ordaintzeagatik; putre-funtsek presionatu eta hertsatu egiten dute, maizterrei alokairuaren prezioa puzteko, eta abar. Plataformek salatu dute gero eta gehiago direla adineko abal-emaielen egoerak, eta, zorrik izan gabe,

etxegabetze-mehatxupearan daudela, banketxeek abusuzko klausulak eskatzen dizkietelako.

Horregatik guztiagatik, Elkarrekin Donostiak BATZORDE EZ IRAUNKOR BAT SORTZEA proposatzen du, ezaugarri hauekin bat:

- **Xedea:** Hiriak etxebizitzaren arloan dituen arazoak aztertzea eta arazo horiei erantzuna ematea.

- **Batzordearen osaera:**

1. Udal talde bakoitzeko kide bat.
2. Gonbidatuak: batzordeburuak gonbidatuta, batzordera etorri ahal izango dira etxebizitza-eskubidea defendatzen duten elkarte eta kolektiboen ordezkariak, aholku-kontseiluetako kideak eta hiriko Gizarte Kontseiluko kideak.

- **Iraupena:** gutxienez 20 hilabete, agintaldia amaitu arte.

- **Bileren erregimena:** hilean behin.

Sin.: Haizea Garay Gallastegi

Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia